

## TRAPUZKO PANPINAREN EGUNEROKOA

Izar Azpiroz Irigorri, 16 urte

*Oiartzun*

Hatzik gabeko eskua da eguneroko honen idazle; ahotsik gabeko ahoa eskubideen aldarrikatzaile; bizirik gabeko gorputza sufrimenduen jabe.

Egunik ez da eguneroko honetan. Eguzkirik zeruratzen ez den mundu ilun batean ez baita egunik. Eta nahiz eta egongelako erloju zaharrak minutuak, orduak... eta beraz hogeita lau orduko denbora tarteak igarotzen diren markatu, ezin zenbatu daitezke. Izan ere ilargiari, eguzkiari, izarrei.. ahanzi egin zaie bakardadeak mugatutako zero honetan euren izpiak botatzea. Baina egongelako erloju zaharreko orratz herdoilduek denborak, segundo, minutu nahiz ordu bakoitzak, bere oinkadak pausatu eta aurrera dihardutela ikusarazten didate, eta egunen batean argiren batek mugagabeko iluntasun honetan bidea begiztatuko didatela sinistarazi. Gauerdia amaitu eta amesgaizto honetatik jaikiko naizen esperantzaz bete.

Bada ba haur bat, masail gorriarik eta aingeru begiradarik ez duen umezurtz bat. Ezin esan dezaket inuzentea denik, ez baita bizitzan zer dagoen

ongi eta zer gaizki ikasten ari den inor. Bere ekin-tzen jaun eta jabe da, bere jostailuen jabe den bezala. Eta haur bakoitzak bere jostailu kutunena duen legez, ni nauka, kotoizko sare batez osatuta-ko trapuzko ninia, bere ondasun preziatuena.

Baina beti ez da izan horrela, ez. Edo behintzat hala pentsatu nahi dut. Ze, ez dut uste elkar eza-gutu genuen egunean eskaini zizkidan irribarreak hutsak zirenik... edo ironiaz josiak. Ez. Irribarre bete-beteak ziren, amodioz beteak: haren hitzak enkantamenduak bailiran sartzen zitzaizkidan belarrietatik, maitasunaren melodiarekin jolasean. Eta solasaldi inuzente haietan ez zen pozoirik, gaur ez bezala: ahoa irekitzen didan bakoitzeko, irri ustel eta nazkagarri horiek eskaintzen dizkidan uneoro... gaixorik sentiarazten nau, pozoindua. Eta hitz egiten didanean ez da gutxiago... bihotze-ra iristen zaizkit, hitz guztiak, banan bana. Eta bakoitzak, aurrekoa baino punta zorrotzago izan lez, barruan daukadan zauria are eta gehiago irekitzen didate... esperantzaren odolak bor-bor ihes egiten didan bitartean.

Baina ihesaldi oparo honen errudun, ez dakit ni ere ez ote naizen. Ze hainbeste esperantza bildu nuen... ametsetan bizi nintzela iruditzen zitzaidan, printzesa moduan...

Oraindik gogoan dut, atzean utzitako azkeneko eguna bailitzan, elkar ezagutu genuen eguna. Egia esan, bihotzez egia esateko aukera banu, nire bizi-tzako egun bereziena izan zen; inoiz dantzatu dudan dantzarik xarmant eta ederrenean bildu

baikinen, eskuak esku eta begiradak begirada elkar irensten genuela maitasun biluzienaren koilarakadaz. Udazkena zen, Tolosako erromerian, zoriaren bultzadaz bion gorputzak bildu zirenean: amaierarik gabeko zeru urdina eskaintzen zidan begirada hura ez dut ahantzi urte luze hauetan, ez eta bere eskuak lehenengo aldiz nire gerrian pausatu eta txoria bainintzan aireratu ninduen unea ere. Lurrean orbel baten jaitsiera lez utzi ninduen, xarmaz marraztutako mugimendu arin batean. Eta berriz ere airean nengoen, segundo gutxiren buruan, jira eta bira, udazkeneko hego haizeak astindutako orbelekin dantzan. Hitz barik, dantza arin eta leun hartan, txoriak udaberrian dasta dezakeen dantzaldirik eztienean, maitemindu ninduen... behin betiko, eta lotu askatzeko modurik ez duen harreman batean.

Lotu, bion izenak bihotz baten barruan biltzeaz ez zen inoiz aspertzen. Txarako basora joaten gineanean, gainean onddoak biltzeko beti zeraman labanaz izkribatzen zituen, sakon izkribatu, bion deiturak bihotz baten barrenean. Eta marrazten zuen irudi bakoitzeko maite ninduela esaten zidan, bere hatsa nintzela. Inoiz ez zidan esaten zenbat maite ninduen... ezta nik berari ere: ikaragarri, pila... elkarrekin igarotako arratsalde bakoitza haren ondoan geratzeko arrazoi bat gehiago bilakatzen zen, eta ondorioz, pasatzen zen egun bakoitzeko geroz eta gehiago maite nuen... horregatik ez nuen mugatzen berarekiko sentitzen nuena. Baina jakin nahi nuke, kuriositate hutsez jakin, berak zergatik

ez zidan esaten: maitasuna mugagabea zelako... edo obsesioa besterik ez zelako.

Haurrak bere jostailu kutunena, hasieran, benetan maite zuela pentsatu nahi dut. Nolabait, elkarren arteko lotura askaezinari zentzu edo hasiera bat aurkitu nahiak bultzatuta. Eta jasotzen ditugun gauza berriei ematen diegun tratu berezia lez, eskaini zidala afektu hura: inoiz inork eman dizkidan laztan leun eta goxo haiek biltzen zituen tratu hura. Ez, ez dut oraindik ahanzi elkarrekin igaro genuen lehen uda. Hainbat gau igarotzen genituen dantzan, behin eta berriz hegaldi haiek eginez, irribarre aske eta begirada samurrak trukatzu une guztietan...

Aurpegian daramadan espresioa aldaezina bada ere, garai hartan benetan sentitzen nuenaren isla zen, eta ez jostorrazak hariaren laguntzaz jositako irribarre faltsua. Haurrak benetan maite ninduen, eta nire bihotzaren jabea, nik ere, modu berean preziatzen nuen.

Urteak igaro ahala, haurra ez zen hazi, baina jabea eta ondasunaren arteko harremana asko sendotu zen. Askatzen zitzaizkidan gorputzeko hari guztiak kontu handienarekin josten zizkidan berriz ere. Xarma eta goxotasuna ziren denborak sortutako orbanak kitatzeko xaboi, konfiantza aurpegi-ko botoiak ordezkatzeko zizkidan ikusmira, errespetua nire kotoizko gorputza biltzen zuen petoa. Begiko ninduela argi da, eta nik ere hala nuen bera. Eta horregatik hartu genuen harremana burdina artean ixteko erabakia, elkarren ordura arte-

ko bizitza independenteak lotzeko deliberazio hura. Haurrak bere eta nire eskumuturrak burdinazko eskukoez lotu zituen, burdinaren elkar errespetatzeko zeregina, elkar betiko lotzarekin trukatu.

Ezin azal dezaket jabearen izaeraren aldaketa, dantzan mantentzen ninduen hego haizea, iltzeak sartzearen pareko, poloko ipar haizean transformatzea. Hautsitako hariak konpondu beharrean, banandutako kordetatik tiratzen hasi zitzaidan. Eta hariak beren lekuan bazeuden, bera arduratzen zen nire trapuzko gorputzetik bereizteaz. Lanean jarduten zuen lekuak krisi ekonomiko bat jasan berri zuela eta haurra etxera bidali zuten, eragin-kortasun gutxikoa zela eta. Eta lanean ezin nabarmendu zuen indarra niri altxatzen hasi zitzaidan: *etxeke lanak* burutzeko erabiltzen zituen *guraizeak* ziren haren erakustaldietako erreminta nagusi. Nire kotoizko gorputza han eta hemendik ebakitzen zuen, haren begietan ikusi ezin ziren odol jarioez blaituz egongelako, sukaldeko... etxeke edozein txoko. Baina nire bizitzaren jabea, esan bezala haur bat zen: eta ni haren trapuzko panpina. Ez zen asetzen hariak atera, kotoia desitxuratu, botoiak haustearekin: gauero edari pizgarriren bat edaten aritzen zen, bere izaera itotzeraino. Eta orduan hurbiltzen zitzaidan, kirats harekin, gose ase ezin bat zuzentzen zidan begirada harekin, eta astiro ekiten zion nire hariz askatutako gorputza biluzteari, pausaldi bortitz batzuen bidez gainean neramatzan urratutako betiko oihalak erauzteari.

Betiko oihal kengarrien azpian more, orlegi, laranja... hainbat koloretako irudiak marraztu zizkidan ene gorputzean, margotu eta josi: eguzkiak udan bere izpi laztangarriekin belztutako gainazala, ortzadar bat osatzeko adina kolorez apaindu zidan: baina ez helburu estetikoekin; jabearen saminak, sufrimenduak, trumoiak ... nire trapu tartean sarztearekin ez zen asetzen, sentimendu ilun hauek barnean gera zitezen aipatutako oihal zatiak josten zizkidan.

Haurra beti arduratzen zen nire egonaldiaz: eskuko burdina zatien lotura ez zegoen gorputzurik, bi eskukoen artean ez zen katerik. Horregatik, nahiz eta pizgarriak beragan egoera inkontziente bat eragin, hasiera hasieratik zenez bere ekintzen jabe, eskukoen artean gauzatzen ez zen kateaz ixten zuen atea, esan bezala nire egonaldia ziurtatzeko.

Egun hauek azkenak dira: ihes egiten ez badut kateatutako ate horretatik, arima da ihes egingo didana. Ezin dut gehiago: haizearen usaina ere ahantzia dut, bai eta eguzki izpiak sentitzea. Sentitu... jada ez dut ezer sentitzen, ezta gorrotoa ere. Garai hura ere atzean utzi dut. Gomuten artean biltzen naiz, ezertan gehiago pentsatu barik: zenbat maite nuen, zenbat maite ninduen... ezin dut gehiago. Nire negarren gazitasuna ez da sentimenduen ondorio: ezinaren seinalea da. Nola sinetsi hau errealitatea denik? Elkar zenbat maite genuen pentsatzean soilik... amildu egiten naiz, jada ez dut kexatzeko indarrik ere. Sentimendurik, ahotsik gabe... panpina naiz.

Ezetz esan nahi diot, baina hitzek ez dute irteerarik trapuzko aho honetatik. Ihes egiten didana hatsa dela senti dezaket, arimak eta azken esperantza apurrak badoazela. Panpina oro bizigabea den lez, geldi geratu naiz, haurrak jolasteaz noiz amaituko zain... ea lehenago bukatzen duen horrela.

Eta baita bukatu ere.

Baina gaur gauean bere ekintzen neurria galdu du, eta gaueroko jolasaldia burutu ondoren, betiko atsedendian murgildu da: lo zorroan bildurik, bonba baten eztrandak jaikitzeke gai ez dela ere. Baina gau honetako gosea inoiz baino handiagoa izan da, eta nahiz eta nire trapuzko gorputzari emandako usoa inoiz baino anker, hilkor eta mingarriagoa izan, bere neurri mugatzaileak hartzea ahanzi zaio, pentsatzen eta erreakzionatzen daki-danarekin batera: ate eta horma arteko katea giltzapetzea ahaztu zaio. Bertan abiatu naiz, bi aldiz pentsatu barik, haurra lo dagoelako hats sakonak entzun orduko, gorputza oinen gainean eraman ezinean, arrastaka, nire askatasunaren helmugarantz. Aterantz hurreratzen naizen metro bakoitzeke gorputzeko zatiak aldatzen zaizkidala senti dezaket: oihalezko trapu adarren ordez, nahiz eta odolez eta ubeldurez bildurik egon, haragi eta hezurretako oinak azaldu zaizkit. Beste bi metro hurrago, izter eta giharrak, bizitzeko beharrezkoak diren elikagaien behar larrian dauden zuntz multzoak. Are eta azkarrago arrastatzen saiatzen naiz, nire enborra, udan Brasilgo oporretan belztutako

azal beltzarana, are eta ilunagoa ageri zait: odol jario, infektatutako zauri eta ubeldurez josirik... Agian panpinaren itxuran ez dirudit hain kaltetua, baina jada ez naiz panpina. Lortu dut irteerara iristea, izan ere korridoreko argiak hilabete luzeetan bildu nauen gau ilunetik atera naizela sentiarazi dit. Ez, jada ez naiz inoren kotoizko ninia, inoren kapritxoak asetzeko lasaigarria.

Baina ez, ez da egunsentia. Nik uste nuen *bikotekide* harengatik banantzean eguzkia lekutuko zela denbora luzez hain ilun izan zen zeruan. Baina orain, nire eskubideak aldarrikatzeko hitza eta idazteko aukera daukadala, euren oihuak ahoskatu ezin dituztenen partez egingo dut, egunsentia iristen den bitartean.